

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

**2023ko komertzio
eta zerbitzuen gida**



E I B A R
KIROLAREN HIRIA





Eibarren
AKEBAI

943 70 84 26

943 70 84 44 (luz. 4201)

eibarrenakebai@gmail.com

www.akebai.eus  

arat.

HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

ZURE
IRRIBARRE
ONENA



Toribio Etxebarria Kalea, 4 20600 Eibar 943 201 851 www.aratklinika.com

sumarioa



2023ko GIDA
Eibarko enpresa,
zerbitzu, komertzio,
tabernak...

67

5

EIBAR Kirolaren hiria

eta kitto!
euskara elkarte

Argitaratzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte **Argitaratze-data:** 2022ko abendua

Publizitatea: Idoia Lavado, Belen Ulazia **Diseinua eta maketazioa:** Ana Aizpurua, JL Gorostegi

Azala: Ramon Beitia **Administrazioa:** Marisol Uriarte

Inprimategia: GERTU **Lege Gordailua:** SS-01351-2019

@etakitto @gaztekitto



EIBAR

Urte Berriari begira, Eibarrek **Kirolaren Europar Hiria** lortu duen tituluari jarraituz, honako honetan, horren berri emateaz gain, gure herriko kirol klubak datuak eguneratu ditugu Gida honetan. Horrez aparte, **euskal kirol modalitateei** ere gainbegiratu eman diegu, euren ezaugarriak bilduz. Hemen dira **herri-kirolak, pilota** modalitateak, **bola jokoak** eta baita **arraun** munduko berriak ere.

KIROLARI

Eibar Kirolaren Europar Hiria 2023

Eibarrek ‘Kirolaren Europar Hiria 2023’ titulua jaso zuen azaroan. Aitortza hori urtero ematen du ACES Europak (Bruselan egoitza duen irabazi asmorik gabeko elkarte, Europar Batzordeak aitortua). Elkarte horrek hainbat sari ematen ditu, hala nola Munduko Hiriburuarena, Europako Hiriburuarena, Eskualdearena, Hiriarena, Uhartearena, Erki-degoarena eta Kirolaren Herriarena. Aitortza horiek ACES Europak ematen ditu, erantzukizunaren eta etikaren printzipioetan oinarrituz, jakinik kirola gizartea batzeko faktore bat dela, eta bizi-kalitatea, ongizate psikofisiko eta komunitatean erabat integratzea hobetzen dituela.

Udalak herriko goi mailako kirol federatuari eta Eibarko kirolari anonimoei aitortza eginez lortu du saria, eta baita Kirol Patronatuaren lanari eta kirolari lotutako kultura inmaterialari ere. Beste gai askoren artean, izendapenaren ardura duen erakundeak duela hamarkada batzuetatik hona gure hirian dagoen emaku-

meen kirolaren sustraitze handia baloratu izan du. Halaber, izendapena posible egin duen beste gako bat Astelena “Pilotaren Katedrala” pilotalekuaren jarduera da, baita Eibar Kirol Elkarte eta Eskubaloia Taldea ere (edo Arrate Kirol Gazteria, bere garaian bezalako klubena jarduera).

Eibarko kasuan, aurkeztu den hautagaitza 25.000 eta 500.000 biztanle arteko hirien kategoriarantz sartu da (gehieneko kupo bat dago urtero); aitortza hori Euskadiko beste hiri batzuek ere jaso zuten, hala nola Bilbok edo Getxok. Kirolaren Europar Hiria saria beste hiri batzuek ere jaso dute: Lisboa, Malaga, Madril edo Glasgow.

Gauzak horrela, Eibarrek konpromisoa hartu du 2023an hainbat obligazio betetzeko, besteak beste, honako hauek: “Eibar Kirolaren Hiria” marka ustiatzea, herrian nazioarteko lehiaketa edo kirol-kongresu bat antolatzea, edo Eibarren kirolaren alde egin den lan guztia mapan jartzea eta hedatzea.

OSO KALIFIKAZIO ONA LORTU DU EIBARREK, ZORTZIAREN GAINETIK





ACES Europako egiaztatzaileak Ander Curiel Kirol zinegotziarekin azaroaren hasieran Eibarrera egindako bisitan. Behean, Curiel bera eta Jon Iraola alkatea titulua erakusten.



Udalak aurkeztutako hautagaitza

2023ko KIROLAREN EUROPAR HIRIRAKO

Kirolaren Europar Hiria izan nahi dugu, Eibar izenak kirolaren arrakastarekin lotuta egoten jarraitu behar duelako.

1. Eibarko goi mailako kirolagatik.

Eibar KE-k ez dio albiste izateari uzten. Ezta Eibar Txirrindularitza Klubaren lanak eta oihartzun mediatikoak ere. Arrate eskubaloi historikoaren lana, Eibarko Klub Deportiboaren funtzio sozial eta deportiboa, edo pilotaren euskal katedralaren, gure Asteleñaren, funtzioa aitortzea ezinbestekotzat jotzen dugu: asko dira gure herriari izena eta ospea eman dioten kirol-klubak.

2. Eibarko Udalaren Kirol Patronatua.

Aitzindaria Espainian; laurogeiko hamar kadako Euskadiko eredu. KAIT elkartearen (Kirolaren Kudeatzaileen Euskal Elkarte) eta FAGDE (Kirolaren Kudeatzaileen Espainiako Elkarte) elkartearen sortzaileetako bat ere izanik.

3. Eibarko kirolari anonimoen funtzioa aitortzeko.

Egunero kirol-instalazioetara joaten diren eibartar guztien lan pertsonal eta soziala gizarte moderno batek izan behar duenaren irudi dira: gizarte aktiboa, osasungarria eta konprometitua.

4. Kirolaren kultura materiala aitortzeko.

Eibarrek badaki bizikletei buruz (Orbea, BH, GAC, Zeus..), badaki eskopetei buruz eta badaki enplegua eta prestakuntza sortzen kirol-materialaren industriari buruz.

5. Udal hau herriarekin eta kirolarekin konprometituta dagoelako.

Baldin eta Eibar KE -zazpi denboraldi jarraian lehen mailan-, baldin eta Euskal Herriko Itzulia edo Arrateko Igoerak, baldin eta Astelenak munduko kirolaren orbitan jarri bagaituzte, Udalaren gestioan horien eredu eta arrastotik jarraitu nahi dugu.



Kirola garatzeko plana

EIBARREK 2016KO URRIAN ARGITARATU ZUEN “2017-2027RAKO EIBAR HERRIAREN PLAN ESTRATEGIKOA”

EGITERA BIDERATUTAKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BATEN ADJUDIKAZIORAKO DEIALDIA.

Kirol-premiak eta -espazioak

Eibar KE-k azpiegitura propioak garatzen dituen arren, Udalaren ekimenak beharrezkoa izaten jarraitzen du futboleko, azpiegitura horren eskari handia dagoelako adin guztietan. Unbe Kiroldegian, padeleko bi pista eta Unbeko tenis-pista ez dira nahikoa, eta, beraz, ekimen publiko edo pribaturen bat bultzatu behar harko litzateke zuzkidura handitzeko.

Astelena frontoiak, nahiz eta bere espezifikotasunagatik aukera asko ez eman, ordu jakin batzuetan erabiltzeko aukera ematen du denentzako kiroletarako (hainbat motatako dantzak tartean). Oso interesgarria da pilotalekuen gainerako programa, auzoetako eta hiri osoko bizitzan kirol-guneak baino askoz gehiago baitira.

Unibertsitate Laboralaren instalazioak, eta Armeria Eskolarenak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin (Hezkuntza).

Sei ikastetxek instalazio egokiak dituzte eta lauk hobe daitezkeen instalazioak.

Espazio naturaletan eta outdoor-espazioetan, bereziki nabarmentzen dira BTTrako ibilbideak eta aukerak, baita bolatokiak, skate-parkeak, tiro-zelaia, probalekua... ere.

Beharrezkoa da gazteentzako parkeak sortzea, ez bakarrik gazteentzat, baita horren beharra duten heldu aktibo eta dinamizatuentzat. Proposatzen da informazio-kartelak jartzea kirol-espazio urbano eta naturaletan, aholku praktikoekin.

Nahiz eta Udalaren eskumena ez izan, oso interesgarria izango litzateke N-634 errepidearen nasen segurtasuna eta itxura orokorra hobetzea Unibertsitate Laboraletik San Lorentzoraino.

Ipuruako Kiroldegiaren zaharberritze integrala eta aldameneko partzelaren aprobetxamendu posiblea.



Eibarko Kirol Sariak

Aurten ere EIBARKO KIROL SARIAK banatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urtero Gabon Zahar egunean egiten den ekitaldian gure herriko kirol talde guztien lana saritzea nahi izaten da eta izpiritu horrek animatuko du XXVII. edizio berri hau ere. Honakoak dituzue aurreko 26 ediziotan banatutako SARI BEREZIAK:

Marcial del Amo (1995)
Manu Agirre (1996)
Txus Alzaga (1997)
Iñaki Zuazo (1998)
Juan Luis Mardaras (1999)
Juanito Gisasola "Txoko" (2000)
Jose Luis Akarregi & Miguel Gallastegi (2001)
Pako Larrañaga "Pakol" (2002)
Iñaki Bolinaga (2003)
Pedro Eiguren "Ixxua" (2004)
Joxe Aranberri (2005)
Patxi Usobiaga (2006)
Pedro Agirregomezkorta "Petrus" (2007)

Miriam Merino (2008)
Ramon Telleria (2009)
Inma Urkiola (2010)
Miguel Diego (2011)
Jaime Barriuso (2012)
Asier Cuevas (2013)
Jon Errasti (2014)
Tania Nagornaia (2015)
Markel Alberdi (2016)
Odei Jainaga (2017)
Davide Cerchi (2018)
Markel Susaeta (2019)
Amaiur Mayo (2021)



Eibarko



kirol klubak

Eibarko Klub Deportiboa

Sorrera data: 1924

Helbidea: T. Etxebarria, 16 - 1.

Harremanetarako: info@deporeibar.com
943201904 / 665726146

Kirolari kopurua: 825

MENDIA

Sorrera data: 1924

Helbidea: T. Etxebarria, 16 - 1.

Harremanetarako:

mendia@deporeibar.com / 943201904

Kirolari kopurua: 602 -576 federatu,
26 eskolako-

Antolatutako ekintzak: Urkora igoera /
Eguneko irteerak / Asteburuko irteerak /
Zubietako irteerak / Aste Santuko irteerak /
Eibarko Mendi Itzulia / Mendi Jardunaldiak
/ Jardunaldi Mikologikoak / Mendian
korrika - Trail irteerak / Mendiko eski
irteerak / Bestelakoak / Eskola Kirolaren
baitako haurren mendi irteerak / Mendian
Federatzeko kanpaina / Mendiko
materialaren mailegua

ATLETISMOA

Sorrera data: 1924

Helbidea: T. Etxebarria, 16 - 1.

Harremanetarako:

atletismoa@deporeibar.com / 943201904

Kirolari kopurua: 96 -47 federatu
(kadete, jubenil, junior, promesa, senior
eta master), beste 49 (benjamin, alebin,
infantil)-

Txapelketak: Gipuzkoa, Euskadi,
Espainia eta Europako txapelketak

Antolatutako ekintzak: Eskolarren
eta federatuen txapelketak, Bolunburu
Memoriala Krosa, Asier Cuevas
Herri-lasterketa, Simon Aldazabal
igoera-lasterketa, San Silbestre lasterketa

PILOTA

Sorrera data: 1924

Helbidea: T. Etxebarria, 16 - 1.

Harremanetarako:

pilotaesola@deporeibar.com / 943201904

Kirolari kopurua: 47 -26 federatu
(infantil errendimendua, kadete, jubenil,
senior eta pala modalitatean senior),
beste 21 (benjamin, alebin, infantil)-

Txapelketak: Gipuzkoako txapelketak
eta torneo pribatuak. Baita pala txapelketa
ezberdinak ere

Antolatutako ekintzak: Pilota Eskola
irailetik ekainera, barixakueroko partiduak
Astelenan, San Juan Saria, lankidetz
Emakumezkoen Txapelketekin,
Eskolarteko torneoak, Euskal Jaiko pala
torneoa

TXIRRINDULARITZA

Sorrera data: 1924

Helbidea: T. Etxebarria, 16 - 1.

Harremanetarako: info@deporeibar.com
943201904

Kirolari kopurua: 23 (sub23 eta Elite
mailakoak)

Txapelketak: Euskaldun eta Lehendakari
Sariak, Espainiako Kopa, Itzuliak

Antolatutako ekintzak: Kirolarien
entrenamenduak, Mugikortasun Eguneko
kolaborazioak, Mekanika tailerrak...



URPEKARITZA

Sorrera data: 1970

Helbidea: T. Etxeberria, 16 - 1.

Harremanetarako:

subacuaticas@deporeibar.com
943201904

Kirolari kopurua: 93 (87 heldu
-16 emakume eta 71 gizon-),
beste sei teknikoekin batera

Txapelketak: Apnean Gipuzkoa, Euskadi,
Espainia eta Munduko txapelketak /
Ur-azpiko arrantza txapelketa Gipuzkoan

Antolatutako ekintzak: Buzeo-ikastaroak
(1, 2 eta 3 izarrekoak), buzeo-bataioak
(igerilekuan eta itsasoan), apnea
ikastaroak eta bataioak, buzeo irteerak,
portu eta kostaldearen garbiketa,
Nazioarteko Itsaspeko zinema zikloa,
Txikiziklo eta Urazpiko argazki erakusketa

XAKEA

Sorrera data: 1950

Helbidea: T. Etxeberria, 16 - 1.

Harremanetarako:

xakea@deporeibar.com / 943201904
Kirolari kopurua: 24 (17 nagusi,
lau jubenil eta bi epaile)

Talde kopurua: bakarra

Antolatutako ekintzak: Xake Eskola
irailtik ekainera, barixakuero hastapen
klaseekin / Eskolarteko Txapelketa
(Gipuzkoakoaren barruan, Eibar inguruko
zonaldekoa) / Eibarko Hiria partida
azkarren txapelketa, Sanjuanetan

SQUASH

Sorrera data: 2008

Helbidea: T. Etxeberria, 16 - 1.

Harremanetarako:

squash@deporeibar.com / 943201904
Kirolari kopurua: 10 (senior mailakoak)

Txapelketak: Europa (beteranoetan),
Espainia, Euskadi eta Euskal Herriko
txapelketa, Nafarroako Zirkuitoan

Antolatutako ekintzak: San Juan Saria,
Euskal Herriko Txapelketa (probintzien
artean antolatutakoa)

ESKIA

Helbidea: T. Etxeberria, 16 - 1.

Harremanetarako: info@deporeibar.com
943201904

ESPELEOLOGIA

Helbidea: T. Etxeberria, 16 - 1.

Harremanetarako: info@deporeibar.com
943201904

EIBARKO KIROL KLUBAK

EIBAR KIROL ELKARTEA



Sorrera data: 1940

Helbidea: Ipurua kalea, 2

Harremanetarako: sdeibar@sdeibar.com / 943201831

Kirolari kopurua: 500 inguru

Talde kopurua: Guztira 18 (11 gizonetzkoetan, 5 emakumezkoetan, 2 futbol egokituan). Gizonetzkoetan (2. Maila, RFEF 3. Maila, Ohorezko Erregional Maila, Ohorezko Jubenil Maila, Jubenil Nazionala; Euskal Ligako Kadetea, Ohorezko Kadetea, Ohorezko Infantila, Infantil Txikia, Alebina A eta B). Emakumezkoetan (RFEF Lehen Maila, Emakumezkoen Lehen Nazional Maila; Euskal Liga; Ohorezko Kadete Maila, Emakumezkoen Infantila). Futbol egokituan (Genuine eta PC)

Txapelketak: Ligako txapelketak, Errege / Erregina Kopa, Euskal Herria Kopa, Genuine Liga, e.a.

Antolatutako ekintzak: Eibarko kirol klubei laguntzak, Klubaren eta Fundazioaren Batzar Nagusiak, Uda eta Neguko Kanpusak, e.a.

UNBE KIROL KLUBA

Sorrera data: 1979

Helbidea: Urkizu, 20 - 3. ezk.

Harremanetarako: jokineguiguren@gmail.com / 653851264

Kirolari kopurua: 280

Talde kopurua: Guztira 10 (futbol-zaletuaren torneoan jokutzen dutenak)

Txapelketak: Liga eta Kopa



URKI KIROL TALDEA

Sorrera data: 1978

Helbidea: Urki, 19 - behea

Harremanetarako: clubdeportivourki@gmail.com / 678395039

Kirolari kopurua: 156

Talde kopurua: Guztira 8 (Gorengo Erregionala, Ohorezko jubenila, Gorengo jubenila, Ohorezko kadetea, 1. Mailako kadetea, 1. Mailako infantila, infantil txikia, alebina)

Txapelketak: Gipuzkoako Federazioaren ligakoak



EIBARTARRAK FUTBOL TALDEA

Sorrera data: 1991

Helbidea: Julian Etxeberria, 17

Harremanetarako: eibartarrak@gmail.com / 629181346

Kirolari kopurua: 100 gutxi gorabehera

Talde kopurua: Guztira 5 (1. Erregionala, 1. Mailako jubenila, 1. Mailako kadetea, 1. Mailako infantila, Partehartzeko alebina).

Txapelketak: Gipuzkoako Federazioaren ligakoak



EIBAR ESKUBALOIA

Sorrera data: 2011

Helbidea: Argatzako Jardinak, 1-3

Harremanetarako: info@eibarskubaloia.eus / 688 675 952

Kirolari kopurua: 305

Talde kopurua: Guztira 20

Txapelketak: Emakumezkoen Ohorezko Zilarrezko Mailakoa, Gizonezkoen 1. Maila Nazionala, Euskal Ligak, Gipuzkoa Lurraldekoak eta Eskola Kirola.

Antolatutako ekintzak: Arratera igoera, Eskubaloia-aren Jaia asteburu batean, nazioarteko partiduak, etb.



EIBAR SASKIBALOIA

Sorrera data: 2000

Harremanetarako: saskieibar@gmail.com
617349215 (Enrique Benitez presidentea)
eta 685756237 (Mikel Lekunberri idazkaria)

Kirolari kopurua: 178 -78 federatu (juniorrak eta seniorrak),
75 ez federatu (infantilak eta kadeteak) eta eskolako 25 (benjaminak
eta alebinak)-

Talde kopurua: Guztira 15. Gizonezkoen senior mailako hiru (Gipuzkoako 1., 2. eta 3. Mailan). Gizonezkoen talde bi eta emakumezkoen beste bat junior mailan. Emakumezkoen talde bi eta gizonezkoen beste bat kadeteetan. Gizonezkoen eta emakumezkoen talde bina infantil mailako parte-hartzean. Eta alebin mailako talde bakarra.

Txapelketak: Gipuzkoa mailakoak

Antolatutako ekintzak: Klubaren argazkia (abenduan), Saskibaloi Eguna (maiatza edo ekainean) eta Ate irekiak (uztailean astebete)



EIBAR RUGBY TALDEA

Sorrera data: 1976

Helbidea: San Bartolome kalea, 2 (Elgoibar) / Unbe kirolgunea

Harremanetarako: secretaria@eibarugby.com / 654 64 34 02

Kirolari kopurua: 145

Talde kopurua: Guztira 8. Emakumezkoen senior mailako bi talde (Espainiako 1. Maila eta Euskal Herriko 1. Maila). Gizonezkoen talde bat (Euskal herriko 1. Maila). Euskadiko Federazioaren barruan: Sub18 taldea (Euskal Herri B Maila) eta Sub16 taldea (Euskal Herri B Maila).

Errugbi Eskolaren barruan: Sub14, Sub12 eta Sub10 taldeak (Gipuzkoa mailan lehiatzen)

Txapelketak: Talde bakoitzaren lehiaketak

Antolatutako ekintzak: Erreginaren Kopa (Espainia mailako lehiaketa)



IPURUA GIMNASIA ERRITMIKOA KLUBA

Sorrera: 1988

Helbidea: Ipurua kiroldegia (Santaines kalea, z/g)

Harremanetarako: gimnasiaipurua@hotmail.com
629330791 (Miriam Merino)

Kirolari kopurua: 125 (Eibar eta Ermua sartuta)

Talde kopurua (konjuntoetan eta bakarkakoan banatuta): Estatu mailako federatuetan, seniorretan hiru bakarka. Estatu mailako base federatuetan: jubenil base taldea (bost lagun) eta bat bakarka, eta kadete base (hiru bakarka). Amateur mailan (Euskadi mailako lizentziarekin): kadeteetako hiru talde (16 lagun) eta jubenetako bi (12 lagun). Eskola mailan: alebiletako hiru talde, infantiletako bi eta benjaminetako bost (lehiaketan ez dute parte hartzen, topaketak egiten dituzte)

Txapelketak: Espainiako taldekako txapelketa, Espainiako bakarkako txapelketa (absolutuak eta base), Espainiako taldekako eta banakako Kopak; Euskal Ligan, taldeak eta bakarkakoak; Euskadiko Txapelketa; Gipuzkoako Txapelketa; Klub eta erakunde ezberdinek antolatutako torneoak (EAE, Nafarroa eta Estatu mailakoak)

Antolatutako ekintzak: San Andres Torneoa, ikasturte amaierako erakustaldia, Gabonetako jaialdia eta Gimnasiaren Eguna (gimnasia kalera ateratzen)



URBAT WATERPOLO TALDEA

Sorrera data: 1998

Helbidea: Orbea kiroldegia (Urkizu, 11)

Harremanetarako: eibarko.urbat.ike@gmail.com / 677061022

Kirolari kopurua: 91

Talde kopurua: Alebin mistoa, infantil mistoa, kadete gizonetzkoak, senior gizonetzkoak, senior emakumezkoak eta master liga

Txapelketak: Gipuzkoako alebin mistoko Liga eta Kopa, EH-ko infantil mistoko liga, EH-ko gizonetzkoen kadete liga, EH-ko 2. mailako gizonetzkoen seniorra, EH-ko 1. mailako gizonetzkoen senior Liga eta Kopa, EH-ko emakumezkoen senior Liga eta Kopa, EH-ko master liga

Antolatutako ekintzak: Multikirola. Hiru aste benjaminak (3-4 mailak) eta beste hiru aste alebinak (5-6 mailak) Ipuuako kiroldegian



EIBAR IGERIXAN

Sorrera data: 2017

Helbidea: Ipuu kiroldegia (Santaines, z/g)

Harremanetarako: eibarigerixan@gmail.com / 688610620

Kirolari kopurua: 150 inguru

Talde kopurua: Igeriketan (benjaminak, alebinak, infantilak, junior, senior eta master taldeak); Ur Irekietan (master taldea); Igeriketa Artistikoan (benjaminak eta alebinak); Igeriketa Egokituan (seniorrak)

Txapelketak: Benjaminak (Liga, Klubeko sariak eta Igerilari Osoa saria); Alebinak (Liga, Klubeko sariak, Teknikazio saria, Gipuzkoako Txapelketa eta Euskadikoa); Infantilak, juniorrak eta seniorrak (Neguko Liga, Klubeko sariak, Sarien Zirkuitoa, Gipuzkoako Neguko eta Udako Txapelketak, Euskal Herriko Neguko eta Udako Txapelketak); EH distantzia luzeko Txapelketa eta Espainako Neguko eta Udako Txapelketak; Master Ur Irekiak (Gipuzkoako Trabesiaren Liga); Egokitua (sari ezberdinak)

Antolatutako ekintzak: Eibarko Gabon Kopa -benjamin eta alebin- eta San Silbestrea (abenduan), Stagea Benidormen -infantil, junior eta senior- (Aste Santuan), Eibarko San Juan Saria -infantil, junior eta senior- (ekainean) eta Klubeko Irteera Gamarrara, Exkamak ekintza -udaleku irekiak- (uztailean) eta FLYSCH Beltza Itsas Zeharkaldia (irailean)



ARIMA GALDUAK JUGGER TALDEA

Sorrera data: 2018

Helbidea: Sansaburu, 5 - 4. esk.

Harremanetarako:

arimagalduak@gmail.com / 666350344

Kirolari kopurua: 10

Talde kopurua: bakarra

Antolatutako ekintzak: erakustaldiak (Uni-Encounter, Gipuzkoa Encounter, Wolfraparty), jugger-hastapenak ikastxeetan (Iturburu, Unibertsitate), 2023an munduko txapelketa antolatu nahi lukete Eibarren



EIBARKO URKO ARKULARIAK

Sorrera data: 2000

Helbidea: Untzaga Zentro Soziala (Untzaga, 6)

Harremanetarako:

oierluengo@gmail.com / 659337951

Kluba Arkulariak Kirol Elkartearen parte

da. Sei klub daude hor (Bilboko

San Adrian eta La Diana, Arkulariak-

Etxebarri, Ostadar-Zornotza eta Arqueros

de Durango, dira besteak), 95 kirolarirekin

Kirolari kopurua: 4 (bi A modalitatean

-hasiberriak- eta beste bi B modalitatean

-rekurbo arkuariak-

Txapelketak:

Arkulariak kirol

elkarteko Liga

eta Euskal Liga

Antolatutako

ekintzak:

Sanjuanetako stand-a



UNBE TENIS KLUBA

Sorrera data: 2015

Helbidea: Otaola hiribidea, 33

Harremanetarako: libargutxi@gmail.com
615758420

Kirolari kopurua: 52

Talde kopurua: 10

Antolatutako ekintzak: Ikasturteko tenis ikastaroak (ume eta nagusientzat, 6 urtetik hasita), Udako tenis ikastaroak (8 urtetik gorakoentzat), entrenamenduak eta partidak (maila altuko ikasle eta jokalarientzat) eta Eibarko Tenis Txapelketa

EIBAR GOLF PITCH&PUTT

Sorrera data: 2012

Helbidea: Txonta, 17 (Lekutxo)

Harremanetarako: jl.tueros@hotmail.com
618214202

Kirolari kopurua: 22

Txapelketak: P&P Europako Txapelketa,

P&P Espainiako Txapelketa, P&P Euskal

Herriko Txapelketa,

P&P Gipuzkoako

Txapelketa, P&P

Kluben Arteko

Txapelketa

Antolatutako

ekintzak: EGPPT

Torneoa, 2012tik



KALAMUA JUDO TALDEA

Sorrera data: 1972

Helbidea: Txirio-kale 2, baxua

Harremanetarako:

kalamuajudo@gmail.com

636494645 (Hegoi Esteban)

Kirolari kopurua: 60

Txapelketak: Gipuzkoako Txapelketa, Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketa eta beste herrialdeetakoak (Portugal, Frantzia, Andorra...)

Antolatutako ekintzak: San Andres Haurrendako Txapelketa, Emakumezkoen Nazioarteko Txapelketa, Estatuko Jiu-Jitsu Txapelketa



URKI-AMAÑA KARATE TALDEA

Sorrera data: 1996

Helbidea: Barrena, 28, 2. D

Harremanetarako: rafa-

karate@hotmail.com / 600437904

Kirolari kopurua: 16

Txapelketak: Gipuzkoako eta Euskadiko maila guztietakoak eta Espainiako batzuetakoak ere bai

Antolatutako ekintzak: Promozioko txapelketa eta teknifikazioak



TTATT GIMNASIOA

Sorrera data: 1994.

Helbidea: Muzategi, 2

Harremanetarako:

gimnasiottart@gmail.com

943206043 / 629530086

Kirolari kopurua: Asko izan dira hemendik pasatutakoak, txapel asko irabaziz, batez ere senior mailan, kadete eta juniorretan irabazi badira ere

Txapelketak: Gipuzkoako Txapelketa, Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketa, nazioarte mailako torneoekin batera



INDA TEAM

Sorrera data: 2010 (Tierra Soleada kirol kluba izenarekin, 2021ean Topinburu Kirol Kluba izena harzteko)

Helbidea: (Armeria Eskolako gimnasioa)

Harremanetarako:

mendiaka@hotmail.com / 645721296

Kirolari kopurua: 50 (13 eta 58 urte artekoak)

Txapelketak: Euskadiko Txapelketa eta Kluben Artekoak. Urtean bostetik zortzira arteko ekitaldi



EIBARKO EUSKAL JOKOAK


Sorrera data: 1997
Helbidea: Ubitxa, 5 - behea
Harremanetarako: hoz@euskalnet.net
 656775943
Kirolari kopurua: 10
Txapelketak: Euskadi eta probintzia mailakoak
Antolatutako ekintzak: San Andres Torneoa, San Isidro torneoa Arraten, erakustaldiak Euskal Herri mailan eta beste hainbat torneoetan parte-hartzea

SOCIEDAD TIRO A VUELO DE EIBAR

Sorrera data: 1951
Helbidea: Arrate Balle, 5
Harremanetarako: stveibar@gmail.com
 943208859
Kirolari kopurua: 250 gutxi gorabehera (instalazioak erabiltzen dituzten kirolariak askoz gehiago dira, eskopeta-fabrikatzaileek ere erabiltzen dituztelako euren komertziorako)
Talde kopurua: Maila desberdinak daude, modalitate bakoitzari dagozkionak / Taldeak ere modalitateen arautegiei jarraituz osatzen dira
Txapelketak: Txapelketa autonomikoak, estatuko eta nazioartekoak, plater, helize eta pitxoi modalitateetan
Antolatutako ekintzak: Plater-tiroa: Foso Unibertsaleko Euskadiko Txapelketa eta eguneroko entrenamendu saioak / Helizeak: asteroko probak, Euskadiko Txapelketa, Euskadiko Kopa, proba puntuagarriak eta Espainiako Txapelketaren eta Espainiako Koparen finalak / Pitxoiak: hileroko probak eta Espainiako Txapelketarako puntuagarria


DIANA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA

Sorrera data: 1887
Helbidea: Miguel Aginaga, 5
Harremanetarako: 943202972
Kirolari kopurua: 120 (90 ehiztari eta 30 arrantzale inguru) / 20 bazkide gastronomikan
Txapelketak: Dianako Txapelketa Soziala, Txapelketarako sailkatzeak, Arraten egiten den Tiro Txapelketa / Arrantzan: Itsasoko lehiaketak, Errekako txapelketak



DINBI-DANBA KIROL TALDEA

Sorrera data: 1988
Helbidea: San Kristobal, 19 - 4. eskuma
Harremanetarako: 626 466 152
Kirolari kopurua: 62
Talde kopurua: Infantil, jubenil eta senior mailak
Txapelketak: Gipuzkoako Eskola Txapelketa
Antolatutako ekintzak: Eibar Hiria, San Juan eta San Andres torneoa



EIBARKO KIROL KLUBAK

ASOLA BERRI BOLA KIROL ELKARTEA

Sorrera data: 1962

Helbidea: Arrate Balle, 31

Harremanetarako: s.d.b.asolaberri@gmail.com / 620100931


Kirolari kopurua: 65

Talde kopurua: Lau talde izaten dira txapelketetan, bertan guztiak nahastuta jokatzeko. Sariak mailaka banatuko dira: orokorra, beterano, jubenil, taldeka, bikoteka, emakumezkoak...

Txapelketak: Gipuzkoako eta Euskal Herriko Hiru Txirlo txapelketak

Antolatutako ekintzak: Gipuzkoako txapelketako tiraldia elkartean,

E.H.-ko txapelketako tiraldia elkartean, Arrateko Amaren eguneko txapelketa Arraten



CASA CANTABRIA

Sorrera data: 1965

Helbidea: Ipurua kalea

Harremanetarako: eibarcantabria@gmail.com

Kirolari kopurua: 10

Talde kopurua: bakarra, bolo-palma modalitatean, afizionatu mailan

Txapelketak: Sanjuanetako Bolo-Palma Torneoa eta afizionatu mailako beste batzuk

Antolatutako ekintzak: Eibar Hiria San Juan jaietako Bolo-Palma Torneoa



ASPE PELOTA

Sorrera data: 1998

Helbidea: San Juan, 5, 1. - esk.

Harremanetarako: info@aspepelota.eus

Kirolari kopurua: 21

Txapelketak: Lau eta erdiko, Binakako, Buruz Burukoa, Udako torneoekin batera

Antolatutako ekintzak: Txapelketa nagusiak, Herriz-herriko jaialdiak



EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Sorrera data: 1926

Helbidea: Pagaegi, 3 - behea

Harremanetarako:

clubciclistaebarras@gmail.com
943203480

Antolatutako ekintzak: Bost txirrindulari lasterketa (Udaberi Saria, juniorrentzat; Balentziaga Oroitzarrea, elite-sub23koentzat, Espainiako Koparako baliogarria; Emakumezkoen Eibar Hiria Sari Nagusia, UCI 1.1 mailakoa; Kadeteen lasterketa; eta San Juan Saria, juniorrentzat), Bizikleta Eguna eta Txistorra Eguna



OCETA EUSKADI TXIRRINDULARITZA ANTOLAKUNTZAK

Sorrera data: 2009 (lehenengo Euskal Bizikleta Kirol Elkartetik dator)

Helbidea: Otaola Hiribidea, 7 - 1.

Harremanetarako: 943128344

prensa@oceta.eus / admon@oceta.eus

Kolaboratzaile kopurua: 2 eta 10

lagunen artean, aktibitateen arabera

Talde kopurua: Debarrena taldean parte hartzea

Antolatutako ekintzak: Gizonezkoen "Itzulia Basque Country" Euskal Herriko Itzulia, "Itzulia Women" Euskal Herriko Emakumezkoen Itzulia eta Donostiako Klasikoa UCI World Tour mailako lasterketak antolatzeaz gain, Debarrena herriko taldearen bultzatzaile ere bada



EIBAR TRIATLOI TALDEA

Sorrera data: 1990

Helbidea:

Ipurua kiroldegia
(Santaines z/g)

Harremanetarako:

647706578

eibartriatloitaldea@gmail.com

Kirolari kopurua: 45

Talde kopurua: 25 absolutuetan, 10 beteranoetan, hiru Sub21-ean eta bakarra jubenetan

Txapelketak: Estatu mailako duatloi eta triatloiak, batez ere Euskadikoak; baita nazioarte mailako duatloi eta triatloiak ere

Antolatutako ekintzak: Eibarko Duatloia (martxoan), Eibarko Duatloi txikia (azaroan) eta Multikirolak



ESCUDERIA EIBAR

Sorrera data: 1993

Helbidea: T. Anitua, 32 - 1. sol.

Harremanetarako:

escuderia_eibar@hotmail.com
636886494

Kirolari kopurua: 10

Talde kopurua: bakarra

Txapelketak: Euskadiko automobilismo txapelketak: rallyak, igoerak, rallysprint...

Antolatutako ekintzak:

sasoi batean Arrate auto Igoera eta Rallysprint Eibar (gaur egun ez)



EIBARKO KIROL KLUBAK

Modalitatea	Kirol Federatua Eibarren				Laburuen Kuadroa				Total	
	Kluba	Haurren maila		Gazte maila		Senior maila		Beteranoak		
		G	E	G	E	G	E	G		E
<u>Eskubaloia</u>	Eibar Eskubaloia	88	79	26	12	34	12	0	0	251
<u>Ioeriketa</u>	Club Urvat	6	28	3	5	6	3	9	6	66
<u>Futbola</u>	S.D. Eibar	112	38	40	0	20	18	25	0	253
	Urki	120	15	40	0	20	0	0	0	195
	Eibarrak	76	0	0	0	20	0	0	0	96
<u>Areto Futbola</u>	C.D.Debabarreba	12	0	0	0	14	0	0	0	26
<u>Errobia</u>	Rugby Taldea	32	0	4	0	29	23	0	0	52
<u>Mendia</u>	C.D. Eibar	12	11	4	1	248	97	75	21	469
<u>Atletismoa</u>	C.D.Eibar	6	7	7	14	3	1	8	0	46
<u>Saskibaloia</u>	Katu Kaleka	0	0	0	0	13	0	0	0	13
	C.D. KA-1173 SASKI									
	Baloia	0	0	0	0	14	0	0	0	14
<u>Waterpoloa</u>	Club Urvat	30	12	7	1	22	11	13	0	96
<u>Judoa</u>	Club Kalamua	6	0	0	0	4	4	14	4	32
<u>Jiu Jitsu-a</u>	Club Kalamua	0	0	2	3	10	3	0	0	18
<u>Defentsa Personala</u>	Club Kalamua	0	0	0	0	9	6	0	0	15
<u>Eskia</u>	C.D.Eibar	0	0	2	4	1	0	0	0	7
<u>Esku Pilota</u>	C.D.Eibar	5	0	4	0	4	0	0	0	13
<u>G. Erritmikoa</u>	C. IPURUA	0	67	0	4	0	8	0	0	79
<u>Xakea</u>	C.D.Eibar	0	0	6	0	16	0	0	0	22
<u>Txirrindularitza</u>	Clis.Eibarrak	0	0	0	0	2	70	0	0	72
	C.D.Eibar	0	0	13	0	0	0	0	0	13
<u>Squash-a</u>	C.D.Eibar	0	0	0	0	10	0	0	0	10
<u>Triatloia</u>	C. Eibar Triatlón Taldea	0	0	0	0	20	0	22	0	42
<u>Ur azoiko jarduerak</u>	C.D.Eibar	1	0	1	0	60	8	0	0	70
<u>Boloak</u>	C.Casa Cantabria	0	0	0	0	10	0	0	0	10
<u>Tiraketa arkuarekin</u>	C.Arqueros Urko	5	1	0	0	12	2	0	0	20
		479	258	155	44	601	266	166	31	2000


Genero-arrakala Eibarko kirol federatua . 1. kuadroa

Azpiko kategoriak	Gazte maila		Senior maila		Beteranoak		Guztira		Total
	G	E	G	E	G	E	G	E	
	479	258	155	44	601	266	166	31	1401
	599	2000							
	18,76 %	55,78 %	38,64 %	68,53 %	40,10 %				

Eskolako kadeteak azpiko kategoriekin lotuz. (2. kuadroa)

	H	M	Total	% H	% M	Brecha
Benjaminak	200	88	288	69,44	30,56	38,89
Kimuaik	184	86	270	68,15	31,85	36,30
Haurrak	156	98	254	61,42	38,58	22,83
Azpiko kategorioa	478	327	805	59,38	40,62	18,76
Gazteak	155	44	199	77,89	22,11	55,78
Seniorrak	601	266	867	69,32	30,68	38,64
Beteranoak	166	31	197	84,26	15,74	68,53
Guztira	1940	940	2880	67,36	32,64	34,72

herri



kirolak

Aizkora

Lehiaketan diametro jakin bateko enbor kopuru jakin bat aldeztatik adostutako denboran (oro har 30 minutuan) aizkoraz ebaki behar da. Enborra lurrian jarri ohi da, aldeztatik aurretik prestatuta eta horizontalean eta, horrenbestez, aizkolariak enboraren gainean zutituta ebakitzen du.

Euskal Herrian aizkolari-proba ofizialetarako pago berdea erabiltzen da, adabagirik gabea. Orain pago gutxiago dagoenez, pinua ere erabiltzen da, batez ere erakustaldi eta entrenamendu-saioterako.

Lehiaketetan indarra eta erresistentzia erakutsi behar dira eta, horretarako, lodiera jakin bateko 6 enborretik 16ra bitartean moztu be-

har dira. Aizkora Euskal Herrian eta Australian egin izan da, eta gerora hedatu zen Zeelanda Berrira, Ameriketako Estatu Batuetara eta Kanadara.

MATERIALA

Gaur egun **Australiako aizkora** erabiltzen da, hura ere altzairuzkoa, baina euskal aizkora baino arinago eta zorrotzagoa. Bi erabiltzen dira: bata astunagoa, jarraitu beharreko bidea markatzeko (zenbaitek Zeelanda Berriko aizkorak erabiltzen dituzte horretarako) eta beste bat arinagoa, lanarekin jarraitzeko. Australiatik ekartzen dituzte.





Trontza

Enborra (horizontalean edo bertikalean) trontza edo zerraz ebakitzea da. Binaka kirolarik hartzen dute parte, trontzaren alde banatan jarrita.

Lehen trontzak Italiatik iritsi ziren, baina gero Suediatik ekarri zituzten. Gaur egun, trontzalariak AEBko tresna batez lehiatzen dira, "amerikanuek" (AEBra emigratutako euskaldunek) ekarri baitzuten 50.eko hamarkadan: trontza horrek askoz ere hortz handiagoak ditu, zailagoa da mugitzen, baina erritmo egokia lortuz gero, askoz ere bizkorrago mozten du ohiko trontzak baino.

MATERIALA

Egurra (aizkora eta trontzarako): pago berdearen enborrak erabili ohi dira, azal eta guzti, moztu berri egoten dira eta adabegi gutxi izaten dute kanpoaldean. Lodieran, 36 ontzatik (0,835 metroko diametroa) 108 ontza bitartekoak (2,504 metroko diametroa) izaten dira.

Trontza: Metalezko zerra luzea da, 1,50 metroko luzerakoa. Trontzalari guztiek Ameriketako lanabesak erabiltzen dituzte, behinola Italia eta Suitzatik ekarritako ohiko trontzak baino hortz handiagoak dituztelako. Lagungarri da astoa, enborrei eusteko egurrezko pieza.

Animalia- eta giza-probak

Proba horiek bereziki atondutako plazetan egiten dira, hots, proba-lekuetan. Han parte-hartzaileek aldez aurretik finkatutako denbora-tarte batez, harri handi bat arrastaka eramane behar dute, eta ahalik eta plaza (iltze) gehien egin behar dute. Harria nork arrastatzen duen arabera: idi-probak (arraste modalitatearik ohikoena da), asto-probak, zaldi-probak, mando-probak eta giza-probak (gizon edo emakume, animalien laguntzarik gabe).

Proba-lekuen luzera aldatu egiten da: distantzia desberdin asko daude, 22 metrotik 28 metrora bitartekoak. Plaza gehienak uharritz estalita daude. Idi-pare onenek manta preziatuak eskuratzen dituzte. Idiak edo idipareak itzainen laguntza jasotzen du bere ahaleginean. Gaur egun idi-proben hiriburua Abadiño da.

Kareharriaren forma laukizuzena da, eta aurreko aldean zertxobait estuagoak dira; aurrealde horretan zulo bat dute katea lotzeko. Harriaren pisua oso desberdina izan daiteke, 1.500 kilo eta 4.000 kilo artekoa.

MATERIALA

Giza probetako **harriek** 500 eta 1.000 kilo artean pisatzen dute, eta animaliekin arrastatzeko harriak, berriz, 1.800 eta 4.500 kilo bitartekoak dira, animalien pisuaren arabera. Lagungarri dira **uztarria** (euskal uztarria adar-uztarria da), akuilua eta makoa eta katea. Uztarri bakoitza artisau-lan berezia da eta betidanik erabili da uztarri bikoitza; bakarra ezohikoa da hemen. **Akuiluak** puntan 11 mm-ko iltzea du. **Makoa eta katea** giza probatan erabiltzen dira: katea harriari lotzen zaio eta kateari makoa. Oihalezko gerrikoak ere erabiltzen dira.





Harri-zulatzaleak

Kareharrizko blokeak zulatzten dituzte, kolpeka eta metalezko haga bati bira emanez. Usadiozko lanetan sustraitua dago, baina, nekazaritzatik etorri beharrean, meatzaritzatik dator. Antzina, harkaitza edo minerala zartatzeko, dinamita-kartutxoak sartzen zituzten zuloetan. Bizkaiko mendebaldean antzina meatzeak zeuden inguruetan egiten da kirol hori batez ere. Proba gehienak Bizkaian egiten badira ere, Hondarribian ere asko hedatu da kirol-mota hori.

MATERIALA

Harri-zulatzaleen **harriak** 300 kilo inguru-koak dira eta ongi landuta daude.

Laztabina 12 kiloko burdinazko laga da; aleazio bereziko puntak jartzen zaizkio, zizel formakoak. Lagungarri dituzte **eskularruak**, eta esparatrapuz estalitakoak ere erabili ditzakete.

Harri-jasotzea

Pisu-altxaketaren aldaera bat da. Zenbait herritan forma irregularreko antzinako harriak erabiltzen badituzte ere, egungo harri-jasotzaile garrantzitsuenek lau forma erregularreko harriak erabiltzen dituzte: biribilak, zilindroak, kubikoak eta koadroak.

Harri-motak: kubikoak (sei alde lauki, heldulekurik gabe), biribilak (bolak, heldulekurik gabe), antzinako harri-koadroa (prisma erregularra edo paralelogramoa, landutako heldulekuekin), sistema modernoko harri-koadroa (heldulekuak ez dute tamaina-mugarik eta harria arindua dago edozein lekutan, aurkako aldeko oinarriaren ertzetan izan ezik), antzinako zilindro-harria (landutako zulodun zilindroa), eta sistema modernoko zilindro-harria (zuloek ez dute tamainu-mugarik

eta harriak pisua arindua du edozein lekutan, oinarriaren zirkunferentzian eta haren aurkako aldean izan ezik).

Badira harri oso bereziak: Albizuri Handi (166 kilo, Amezketako udaletxean gordeta); Ernaitza (147 kilo, Zaldibiako Saturdi auzoan); Etxauriko harria (136,5 kilo, Lurgorria elkartean); Errota (109 kilo, Zestoak Iraeta auzoko jatetxean); eta Errekartetxo (212,5 kilo, Azpeitian).

MATERIALA

Harri-jasotzerako **harri naturala** erabiltzen da; oro har, granittoa edo kareharria. Lagungarriak dira **erretxina** (harri edo hautsean) eta **kota**, harian zein eskuetan, besoetan eta kirolariaren beraren arropetan jartzeko.





Lokotx-biltzea

Aldez aurretik finkatutako denbora tarte batean lokotx (arto-buru) kopuru jakin bat lurretik jaso eta otzara batean uzten da. Gaur egun egurrezko makila txikiak erabiltzen dituzte lokotxen ordez.

Batzuen ustez, lokotx-biltzearen jatorria uzta-biltzearekin lotuta dago (zehazkiago, arto-bilketarekin), eta beste batzuen ustez, berriz, lana ezagutzen hasteko balio zuen haur-joko erraz batekin. Proben helburua ahalik eta denbora laburrenean arto-buru (lokotx) edo egurrezko makila kopuru handiena (oro har,

50 ale) biltzea da. Lokotxak lerroan jarrita egoten dira, elkarrengandik 1,25 metrora, eta bildu ahala otzara batera sartu behar dira. Proba gogorra da, sei minututik gora irauten du eta ez dago astirik atseden hartzeko, ez eta estrategia landuegiak asmatzeko ere. Izan ere, diziplina horretan diharduten kirolari gehienak atletismoan zaildu dira.

MATERIALA

Arto-buruak, saskiak eta zakuak erabiltzen dira.

Sega

Kirolariek denbora tarte jakin batez (ordubetez) ahalik eta belar gehien moztu behar dute, txapelketarako sega luze batez baliatuz. Modalitate hori oso sustraitua dago Gipuzkoan eta Nafarroan.

Sega kortetako ganadua elikatzeko soroe-tako belarra bildu beharretik sortua da. Penintsulako beste zonalde batzuetan ez bezala, Euskal Herrian erliebe aldapatsua dugunez, ezin zen makina mekanikorik erabili. Horregatik, belarra eskuz segatu behar zen, mekanismo bakar gisa sega baliatuz. Ondoren, belarra moztuta zegoenean, 3 eta 5 metro bitarteko belar-meta handietan pila-tzen zuten, eta lehortzen utzi.

Proba oso gogorra da, segalariak makurtuta egon behar baitu; horrenbestez, gorputz-entzorra aurrerantz makurtuta eta birrikak estututa dituela arnastu behar du. Gainera, bela-

rra behetik ebaki behar da, eta epaileek segalaria zigor dezakete ebaketa okerra dela irizten badiote.

MATERIALA

Sega altzairuzko pieza bat da, eta hiru zati bereizi ditu: ahoa, bizkarra eta orkatila, eta orkatilatik kirtena sartzeko lotura ateratzen da. Kirtena egurrezkoa da. Lehiarako sega baserrietan erabili ohi dena baino askoz ere handiagoa da (0,95 metro batek, 1,20 besteak). Lagungarri izaten dira **arrastelu edo eskuarea** (egurrezkoa da eta moztutako belarra jasotzeko erabiltzen da) eta **balantza erromatarra** (belarra pisatzeko). **Zorroztarria**, bestalde, sega zorrozteko erabiltzen da eta egurrezko edo plastikozko pote batean (sega-potoan) sartuta egoten da.





Txinga-eroatea

Burdinezko bi bloke (txingak edo errota-txingak) eramatea da. Bakoitzak 50 kilo pisatzen ditu (emakumeentzat, 25) eta esku bakoitzean bat eraman behar da, denbora-mugarik gabe, ahalik eta distantzia luzeena eginez. Errotetako lanetik sortua izan liteke, balantzarako pisu handiak erabiltzen baitzituzten.

MATERIALA

Txingak burdinezko piezak dira eta heldulekua ere burdinezkoa da.



Ontzi-eramatea

Bi bidoi ahalik eta distantzia luzeenean eramatea da, bidoietakoko batek ere lurra ukitu gabe. Diziplina hori esne-tupinak eramaketik dator.

Modalitate horretan, kirolariak esku bakoitzean 40 edo 50 litroko lupina hartuta, ahalik eta distantzia luzeena egin behar dute. Batzuentzat kirol hori salgaiak garraiatzetik (malleta eta paketeak) eta alor horretan sortutako erronketatik etor liteke, baina beste batzuentzat askoz ere gauza sinpleago batetik dator, esnea tupinetan garraiatzetik.

MATERIALA

Marmiten kasuan, **tupina edo ontzia** (ontzi-eroatekoa) Iparraldean erabili izan dena da, aluminiozkoa eta 41 kilo pisatzen du.

Sokatira

Oso hedatua dago mundu osoan, eta Europako eta munduko txapelketak izan ohi dira aldian behin. Kirol olinpikoa izan zen Aro Modernoko lehen Joko Olinpikoetan.

Kirol horren gaineko lehen aipamenak antzinako Egiptokoak dira eta, gero, antzinako Greziako Joko Olinpikoetan ere agertzen dira. Sokatira sei aldiz izan da kirol olinpikoa: 1900ean (Paris), 1904an (Saint Louis), 1906an (Atenas), 1908an (Londres), 1912an (Stockholm) eta 1920an (Anberes)

Gaur egun, nazioartean lehiatzen diren taldeak zortzi gizon edo emakumez osatuta daude, eta tiratzaile horiek kategoriatan banatuta daude, euren pisuaren arabera; oro har, 480 kilotik 720 kilo artekoak dira. Lur eta goma gainean lehiatzen dira.

Dirudienez, Euskal Herrian sokatirak jatorri zehatza du, eta arrantzaleen portuetan egiten zen lanarekin edo herrietako gizonen artean eta bapatean sortzen ziren erronkekin lotu ohi dute. Garai batean, itsasontziak portura arrastatzeko lana gizon edo emakume taldeek egiten zuten (batez ere emakumeek, hots, zirgalari ospetsuek) eta laster aurkitu zuten elkarri erronka jotzeko aukera.

MATERIALA

Sokak 33,5 metro luze izango du gutxienez. Sokaren muturrek usta eran amaitu behar dute, azpilduta egonik. Eta **belarretarako** (out-door) zein **goma gainerako** (in-door) oinetakoak erabiltzen dituzte.





Ingude-altxatzea

Diziplina horretan 18 kiloko ingudearekin ahalik eta jasoaldi gehien egin behar du kirolariak, zehaztutako garaieran dagoen oinarri batetik, minutu eta erdian.

Metalezko pisu bat (eskuetara behar bezala egokitutako ingudea, 18 kilokoa) ahalik eta aldi gehienetan altxatzea da helburua. Ingudearekin bi txapa ukitu behar dira: lehena kirolariaren oinen garaieran dago, eta bestea

haren burua baino 20 cm gorago. Proba azkarra da, 90 segundokoa, eta indar handia eskatzen du besoetan eta gerrian.

MATERIALA

Txapelketetan erabiltzen den **ingudearen** pisua 18 kilokoa da; emakumezkoen kasuan, 10 kilokoa.

Orga-jokoa edo gurdi-jokoa

Ardatz baten inguruan, endaitza toki batean finko duen gurdia atzeko aldetik altxatu eta hari birak ematea da. Distantzia zirkunferentziaren arabera kalkulatzen da eta gurpilek ez dute lurra ukitu behar.


Diziplina horretan kirolariak 200 eta 325 kilo arteko orga zahar bat altxatu behar du, eta bere ardatzaren inguruan birarazi. Zehaztutako denboraren barruan (minutu eta erdian)

gurdiari bira gehien ematen dionak irabazten du; batzuetan, ordea, kirolariak ahal bezain bira gehien eman behar dizkio.

MATERIALA

Orgak 4 metro eta 50 zentimetro neurtuko ditu. Orgak **balantzaren** gainean izan beharreko pisuak 200 kilokoa izan beharko du (hagaren pisua kenduta).





Zaku-eramatea

Bizkarrean 80 kiloko zakua hartuta egiten diren lasterketak. Proba errelebuka egin ohi da, kontrabandista euskaldunek (mugariek, alegia) antzinako ibilbideetan egiten zuten bezala. Euskal Herrian muga egiten duten zonaldeetan zaku-eramatea mugalari edo kontrabandisten lanari lotzen zaio. Diziplina bitxi horretan ardoz edo antzeko zerbaitez betetako zakua (80 kilokoa) 120

metroan sorbalden gainean eramatea da helburua; errelebu-proba da.

MATERIALA

Zakuek (zaku-eramatekoek) 80 kilo pisatzen dute eta ardoz, gariz edo antzeko zerbaitez beteta daude. Emakumezkoen txapelketetan zakuen pisua 40 kilokoa da

Lasto-botatzea

Kirolariek zaku bat bota behar dute garaiera jakin batera, pertika bat gaindituz; horretarako, sardea erabiltzen dute.

Neguan belar-fardelak baserrietako lastategietan edo sabaietan gordetzeko lanetik dator proba hori. Sardearen laguntzaz, garaiera jakinean jarritako barraren gainetik igarotzean datza. Barra geroz eta altuago jartzen da eta lehiakide bakoitzak hiru saiakera egin ditzake garaiera bakoitza gainditzeko; lortzen badu, barra altuago jartzen da.

MATERIALA

Lastoa botatzeko erabiltzen den **fardelaren** pisua 12 eta 18 kilo artekoa da. **Sardea** lasto-botatzerako erabiltzen da, eta 1,80 metroko luzera du gehienez.



Lasto-jasotzea

Denbora jakin batez kirolariak zakua garaiera jakin batera altxatu behar du, soka eta polea baten laguntzaz. Jasoaldi gehien egiten duenak irabazten du.

Lasto-jasotzeak ere aurrekoaren antzeko jatorria du eta bere helburua polea bat baliatuz belar-fardel handi bat (30-45 kg) hainbat aldiz zazpi metrora altxatzea da. Fardelak goian dagoen polea ukitzen duenean, kirolaria jaitsieraren inertziaz baliatzen da, hartara gorantz abiatu eta lastoa altxatzeko bultzada aprobetxatzeko. Ikusgarria da. Oro har, probak bi minutu irauten ditu.

MATERIALA


Lasto-jasotzerako erabiltzen den **fardela** 45 kiloko da. Lasto-jasotzerako **polea eta soka** ere dira lagungarri.



euskal



pilota



Luzean eta pleka

Pilota jokoan luzean aritzea da, pilotari-taldeak aurrez aurre jarrita, pilota aurkariaren zelaira botatzea. Pleka aritzea, berriz, frontisaren kontra jokatzea da. Joko mota hori berritzailea izan da.

PILOTA JOKOAK PILOTA PLAZA EDO PILOTALEKU ESPAZIO IREKIETAN

Joko zuzenak: Bi talde (3, 4 edo 5 jokalariko bi talde) aurrez aurre pilota plazan aritzen direnak. Helburua pilota arerioaren eremuko atzeko lerrotik pilota igarotzea zen. Pilota plazaren eremuko alboetako lerroetatik, bote egin eta gero irteten bada, "arraia" markatzen da. Tantoak: 15, 30, 40 eta Jokoa! 30era berdintzen dutenean "A dos" esaten du epaile edo xaxariak. Jokatzen diren pelota joko modalitateak: "bote luzea", "guante laxoa", "errebotea", "blé"-an edo "pleka" esku huska, "blé" edo "pleka" erremintarekin.

PILOTA JOKOAK PILOTALEKU EDO ESPAZIO ITXIETAN

Joko zuzenak: bi bikote aurrez aurre, erraketa, xare, eskularru edo eskuz aritzen direnak.

Zeharkako pilota jokoak (blé edo pleka): gaur egun euskal pilota jokoak ezagutzen dena: Pilota joko berria XIX. mendean egin zen ezagun: bakarka, binaka edo batzuetan hiru taldeekin, paretaren kontra egindako pilota jokoak da.



Trinketa

Trinketa lau hormako pilotaleku itxia da, kontrakantzarik gabea eta jorako baliagarriak diren lau paretaz mugatua: frontisa, erreboteko horma eta ezker zein eskuin paretak. Trinketaren neurriak hauek dira: 10,45 metrotako altuera, 9'30eko zabalera eta 30 metroko luzera. Esparru hori itxia eta angeluzuzena da. Eskuin pareta eta frontisa "fraile" izeneko alaka edo txafian batean elkartzeko dira; beraz, ez dute angulu zuzenik eratzten.

Ezker-pareta guztian zehar, hasi frontisetik eta erreboteraino, eta zenbaitetan erreboteko paretan ere bai, solairua dago ezarria, bertan ikusleak egoteko eratuak. Solairu horrek sare bat izaten du babesteko. Berezitasun horiek direla-eta, oso joko bizia eta aldakorra sortzen da. Trinketean modalitate desberdinetan joka daiteke: eskuz, sarez, pale-taz, pasaka, etabar.






Joko garbi

Joko mota hori bereziki Iparraldean jokatzen da. Frontisaren kontra, baina ezker paretarik gabe aritzen dira pilotariak, hiruak taldetan. Sakonera txikiko xistera txikia erabiltzen da. Ez da atxikirik egiten eta, egiten bada, oso atxiki arinak dira, sarek egiten direnak bezalakoak. Joko bizia da eta sarritan boleaz egiten dira jokaldiak.





Sare

Pilotan jokatzeko sareak 59 zm-ko luzera, 19 zm-ko zabalera eta 90 gramoko pisua ditu. Pilota sarean jaso eta bertan mantendu gabe, azkar jaurti behar da, eskumutur eta besoaren mugimendu bizi batez. Markoan ezarritako sarea oso lasai dagoenez, ezin da pilotari kolpeka jokatu. Begi zorrotza eta gerri arina eskatzen ditu erreminta honek, eta bereziki frontoi motzean eta trinketan erabiltzen da banaka edo binaka jokatzeko.





Errebotea

Pilota joko hori xisteraz jokatzen da aurrez aurre jartzen diren bost laguneko bi talderen artean; antzina, laukoteak ere baziren. Joko hori plaza edo pilotaleku irekian jokatzen da. Alde batean erreboterako horma nagusia dago eta bestean kontrako horma. Antzina, laxoarekin batera, gehien jokatzen zen modalitatea dugu. Gaur egun, Iparraldeko zenbait herritan eta Hegoaldeko Billabonan eta Zubietan (Donostia) jokatzen da.





Pasaka

